



OSASUN SAILA

Osasun Sailburuordetza
Osasun Publikoko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE SANIDAD

Viceconsejería de Sanidad
Dirección de Salud Pública

KC

**EAEko KONTSUMOKO UREN ZAINZARAKO ETA KONTROLERAKO
OSASUN SAILAREN EKINTZA-PROGRAMA. 2009. URTEA.**

Vitoria-Gasteiz, 2009ko urtarrila



SARRERA/AURREKARIAKINTRODUCCIÓN/ANTECEDENTES

Kontsumorako uren kalitate eta osasungarritasuna bermatzeko sortu zen 1987an Euskadiko Uren Kontrol eta Zainketa Sarea. Geroztik, eta batez ere 2002tik aurrera, 178/2002 dekretua argitaratu eta EKUIS informazio-sistema martxan jarri zenetik, nabarmenki hazi zen. Gaur egun sareak garapen eta ezarpen maila altuak ditu..

Sarearen jarduera horietan zehar hartu dugun eskarmentu handiak kontrol eta zainketa ekintzak berriro zehaztu eta bideratzeko balio digu, beti ere, etengabeko hobekuntza prozesu batean. Beraz, milurteko berriaren 1. hamarkadaren bukaeran, Euskadin hiru dira gaur egungo kontrolaren eta zaintzaren ardatz eratzaileak: hornidura sistemetan auto-kontrola ezartzeko apustu tinkoa, jarduerak arrisku-prebentziora bideratzea eta informazioa eskuratzeko bideak erraztea.

178/2002 dekretuak, Edateko Uren Kontrol eta Zainketa Sarea arautzen duenak, ezartzen du hornidura sistema guztiek Kontrol eta Zainketa Unitate bat (KZU) eduki behar dutela, *hornikuntza kontrolatu eta kudeatzeko programak* idazteko eta gauzatzeko, Osasun Sailak egiaztatutako agente gisa. Zer esanik ez, programa horiek arau amankomun eta estandarizatu batzuei jarraitu behar diete, jokabide ezberdinak saihesteko eta hornidura-gune ezberdinetako programen emaitzak konparagarriak izateko. Helburu horrekin, 2007tik, KZUen eta osasun zentroyen jarduera gehienetarako lan prozedurak eta jarraibide teknikoak landu eta pilotatu dira. Bestalde, funtsezkoa da programak hornidura gune bakoitzean dauden perilen prebentziora zuzentzea. Horretarako biderik eraginkorra, ur-hornikuntza sistemetan arriskuak kudeatzeko eta kalitatea hobetzeko sistemak ezartzea da. Hori da Osasun Sailaren iritzia eta horregatik sistema horiek ezartzea hartu du berrikuntza ekimen bezala 2008-2012 eperako.

Denbora luzez, uraren kontsumotik eratorritako osasunerako arriskuen zainketa, legeriak emandako balio parametrikoak edo gida-balioak betetzen diren ala ez zaintzean oinarritu da, batez ere. Hala ere, zainketa analitikoa beti garrantzitsua den arren, kontrol eta kudeaketa planek horrela bideratuta egon behar dute: lehenengo eta behin, arriskuen prebentziora, hau da, hornikuntzan kutsadura-gertakariak saihestera. Analisi batek gune batean banatutako ura ez dela edateko egokia adierazten badu, aldeztatik sisteman zerbaitek huts egin du, eta kontsumitzaileentzako perila jadanik ur horretan ageri da.

HACCP edo PKPKA sistema (Perilen eta Kontrol-Puntu Kritikoen Analisia) elikagaien industriarako garatu zen, eta elikagaien prozesaketarekin zerikusia duten osasunerako arriskuak prebenitu edo gutxitzeko nazioarte mailan onartutako sistema bihurtu da. HACCP kontsumo publikoko ur-sistemetara aplikatzeak, hornikuntzaren uraren kalitatea kudeatzeko esparru egoki bat sortzen du, hornikuntzak kontrolatu eta kudeatzeko programen prebentziozko orientazioa indartzen du.

Euskadiko uren kontrol eta zainketaren 3. ardatza informazioari dagokio. Izan ere, ez da nahikoa urak behar bezala kontrolatzea eta zaintzea, beharrezkoa da sortzen den informazioa zabaldu eta bere hartzaille guztiengana (plangintza-egileak, politikari erantzuleak, profesionalak eta herritarrak) heltzea.

Kontsumorako uren informazio-sistema (EKUIS) 2004. urtean jarri zen martxan. EKUISek azpiegitura eta emaitza analitikoek buruzko informazioa zehazki bildu eta Sareko zentroen eta herritar guztien eskura jartzen du. Informazio sistema bizia eta konplexua da, etengabe eginbehar berriei erantzuna eman eta berrikuntza teknologikoetara egokitu behar duena.

Dokumentu honetan laburki aurkezten ditugu 2009rako Osasun Sailak aurreikusitako funtsezko jarduera-ildoak, uren kontrol eta zainketaren inguruan. EKUISen (<https://xlnets.servicios.euskadi.net/n38a/N38servletPortal>), OSANETen (<http://www.osanet.euskadi.net/r85-13492/es/>) eta Osasun Sailaren barne sarean (W:\AGUAS DE CONSUMO) eskura daude dokumentu teknikoak, txostenak, prozedurak gidak eta jarraibide teknikoak (JT).

I. HELBURUAK

HELBURU NAGUSIA

Kontsumoko uretatik osasunarentzat eratorritako arriskuen zainketa gauzatzea EAEn. Zainketa horrek informazio egokia sortu behar du, bai osasunaren ebaluazioa egiteko, eta bai uraren kontrolera zuzendutako esku-hartzeak bideratzeko.

HELBURU ESPEZIFIKOAK

1. Euskadiko ur-hornikuntza guneean arriskuak kudeatzeko eta kalitatea hobetzeko sistemak ezartzea sustatzea.
2. Euskadiko uraren kalitatearen eta hornikuntza-guneetako sistemak zaintzea
3. EKUIS informazio sistema erabiltzaileen eginbeharretara eta teknologia berrietara egokitzea
4. Herritarrek eskura dezaketen hornikuntza sistemen azpiegiturari buruzko eta uraren edangarritasun eta kalitateari buruzko informazioa hobetzea./// Herritarrarentzako dagoen informazio erabilgarria hobetzea, hornikuntzen azpiegiturei eta kontsumorako uraren kalitateari eta edangarritasunari dagokionez.
5. EAEko haur-hezkuntzako ikastetxeetan eta etxebizitzetan hodietaik datorren berun-lagapena baloratzea.

JARDUERAK

JARDUERAK

Uren zaintza eta kontrolaren protagonismorik handiena KZUei eta osasun publikoko zentroi dagokie, jarduerak programatzerakoan zein gauzatzerakoan. Lehenengoek, autokontrolaren gakoa diren *hornikuntza kontrolatu eta kudeatzeko programak* idatzi eta gauzatzen dituzte, kontrola beren gain hartu duten hornikuntza-guneetan (1). Osasun Sailak eskualdeko zentrozen bitartez ematen ditu osasun publikoko zerbitzu gehienak. Horien artean, osasun aginpidea izateagatik edateko uren inguruan dagozkionak, hala nola, HGen (Hornikuntza Guneen) gainbegiratzea, azpiegituren ikuskapena, ebaluazioa eta herritarrei informazioa ematea.

JARDUERAK

1. Eskualdeko programazioa. Eskualde-zentroek gainbegiraketa, ikuskapen, auditoria eta ebaluazio jarduerak programatzen dituzte, betiere, *Edateko uren zainketarako lan prozeduretako* eskuliburuan (Osasun Saila, 2008) adierazitako irizpideen arabera.

2. *EAEko edateko uren hornikuntzak kontrolatu eta kudeatzeko programak prestatzeko gidaliburua* argitaratu eta zabaldu, programak ebaluatzeko prozedurekin batera.

HG handienetan, kudeatzeko eta kontrolatzeko programek 2010. urtetik aurrera HACCPz oinarrituta egon beharko dute

3. Zainketa berezia. Izendapen hau, Osasun Sailak egiten dituen analisi eta ikerlan osagarriei dagozkie. 2009an honako hauek hartuko ditu barne:

Desinfekzioetik datozen produktuak(DDP). 2009an, Osasun Sailak egingo duen gainbegiraketak trihalometanoak eta azido haloazetikoak barne hartuko ditu, gutxienez kloroa desinfektatzaile gisa erabiltzen duten 1000 biztanletik gorako HGetan.

Plagizidak. Osasun Sailak, gutxienez, 10000 biztanletik gorako HGetan egingo ditu plagiziden gainbegiraketako analisiak. Horretarako laginak sareetan edo araztegien irteeretan hartuko dira.

Hexakloroziklohexano (HCH) analisiak. 2009an HCHak analizatuko dira Bizkaiko ur-bilketetan edo araztegiatan. Irizpide orokor gisa, ur-bilketak banan-banan analizatuko dira iraganean HCHzko isurketa ezkontrolatuak izateko arrisku handiagoa izan duten lekuetan.

Hornidura-guneko, uretako berun emaitzak baloratzea, 10 µg/L baino gehiago duten Euskadiko etxebizitzetan

2008an, kronograman aurreikusitakoa baino hilabete batzuk beranduago, bukatu zen laginen bilketa eta analisia; betiere, laginak etxebizitzetara zerrenda aleatorioak erabilita hartu ziren. 2009an, emaitzak HGka baloraturik, ekintza-neurriak proposatuko dira

Ikastetxeetan berunezko hodirik dagoen eta bertako uretako berun maila zehaztu

2008ko ekaina artean, ikastetxetan ur laginak bildu ziren berunezko hodiak dituzten eraikuntzak identifikatzeko. 2009an emaitzak baloratuko ditugu.

Euskadiko uren tratamendutik datozen kutsatzaileak. Arriskuaren ebaluazioa eta tratamendu aukerak.

Osasun Sailak finantzatu duen ikerketa komisionatu baten proiektua da. Bere helburuen artean hauek daude: azken 5 urteetako THMen emaitza erabilgarriak analizatzea, horien eraginpean egoteak EAeko populazioaren osasunerako izan ditzakeen arriskuak eta ondorioak baloratzea, eta beharrezkoa den HGetan, tratamendu aukera ezberdinen balorazio ekonomikoa egitea. Proiektua 2009an eta 2010an gauzatuko da.

Erradioaktibitatea. Alfa eta beta aktibitatea zehaztuko da 500 biztanletik gorako HGetan.

4. EKUISeko garapen berriak

EKUIS 2008an onartu ziren lan prozeduretara eta jarraibide teknikoetara egokituko da 2009an. Besteak beste beharrezkoak dira honako moldaketa hauek: programak ebaluaketetarako, auditorietarako, ikuskapenetarako eta araztegiatarako modulu berriak sortzea; halaber, telefonia mugikorraren bidezko sareratzea ezartzen hasiko gara.

Vitoria-Gasteizen, 2009ko urtarrila



	Urt.	Ots.	Mar.	Api..	Mai.	Eka.	Uzt.	Abu.	Ira.	Urr.	Aza	Abe.
Eskualdeko programazioa												
EAEko edateko uren hornikuntzak kontrolatu eta kudeatzeko programak prestatzeko gidaliburua argitaratu eta zabaldu												
Zainketa berezia (DDP)												
Hornidura-guneko, uretako berun emaitzak baloratzea, 10 µg/L baino gehiago duten Euskadiko etxebizitzetan												
Ikastetxeetan berunezko hodirik dagoen eta bertako uretako berun maila zehaztu												
Plagiziden analisiak												
Hexakloroziclohexanoen analisiak.												
Euskadiko uren tratamendutik datozen kutsatzaileak. Arriskuaren ebaluazioa eta tratamendu aukerak.												
Erradioaktibitatearen analisiak												
EKUISeko garapen berriak												
DS: EKUISeko mantentzea eta erabiltzaileei laguntzea												
DS: EKUISetik SINACerako informazioaren transferentzia												
DS: 2008. urteko estatistika ofiziala												
Ebaluazioa												